

## BATX2\_Psikologia\_PROGRAMAZIO LABURPENA

Irakaslea | Jone Usoz Ortiz | Maila | LB2 | Ikasturtea | 2021-2022

### IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Covid-19k sortutako egoera dela eta, bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak Kontingentzia Plana izena daraman dokumentuan azaltzen dira [Kontingentzia Plana](#). Hirugarren eta laugarren egoeratan [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#) aplikatuko da.

Psikologia ikasgaia giza jokaera eta horren azpiko prozesu mentalak ikertu eta ulertu nahi dituztenei zuzenduta dago. Psikologia 2. Batxilergoko ibilbide guztietan aukeran ematen den ikasgaia da. Astero lau ordu izanen ditu.

Ikasgaiaren helburu orokorrak honako hauek dira:

- Auto-ezagutza eta norberaren indibidualtasunaren ulermena lortzea.
- Giza jokaerak eta pertsonen arteko harremanak ulertzea.
- Ikasleari heltze-prozesuan laguntzea.
- Ikaslearen eguneroko bizitzan zein etorkizunean sor daitezkeen egoera gatazkatsuetan edo zailtan irtenbideak bilatzeko tresnak eskuratzea.

Irakaslearen posta elektronikoa hau da: [jusozort@educacion.navarra.es](mailto:jusozort@educacion.navarra.es). Kurtso hasieran, gelako classroom bat sortuko dugu dokumentuak partekatzeko eta proiektuak eta lanak bertan jasotzeko.

OINARRIZKO GAITASUNAK	UNITATEAK
1) Hizkuntza komunikazioa.	X
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.	X
3) Gaitasun digitala.	X
4) Ikasten ikastea	X
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	X
6) Ekimena eta ekintzailletza.	X
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	X

### ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

[Batxilergoko helburuak](#)

### EDUKIAK

[Psikologia](#)

**1.EBAL:** Psikologia zientzia gisa hartuta. Oinarrizko prozesu kognitiboak: sentsibiltatea, hautematea, arreta eta oroimena. Pertzepzioaren eta Oroimenaren nahasmenduak. Psikologia soziala.

**2.EBAL:** Jokaera eta pentsamenduaren oinarri biologikoak. Goi mailako prozesu kognitiboak: ikaskuntza, pentsamendua eta adimena. Psikologia soziala.

**3.EBAL:** Gizakiaren eraikuntza: kontzientzia, inkontzientea eta sasi-kontzientzia. Gizakiaren

eraikuntza: motibazioa, afektibitatea, sexualitatea; nortasuna eta bere nahasmenduak.

**Skolae:**

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko **Skolae Berdin Bidean** programan integratutako ikastetxea izanik, programa honen zenbait jarduera ikasgai honen programazioan txertatuta daude. Hots, garunaren ezaugarriak aztertzen ditugunean, **generoak edota sexu biologikoak jokabidean duten eragina (ala eraginik eza)** ikertzen duten zenbait psikologo eta neurologoren ikuspegia ezagutuko dugu. Horretaz gain, **“Nire eguneroko emozionala”** deituriko praktika egingo dugu, generoak pertsonaren jokabidean, pentsamenduan eta emozioetan duen eragina (ala eragin eza) aztertzeko.

**EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK**

BATX CURRICULUMA

**UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA**

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
32	Psikologia zientzia gisa hartuta.	32	Jokaera eta pentsamenduaren oinarri biologikoak.	32	Gizakiaren eraikuntza: kontzientzia, inkontzientea eta sasi-kontzientzia.
	Oinarrizko prozesu kognitiboak: sentzibilitatea, hautematea, arreta eta oroimena.		Goi mailako prozesu kognitiboak: ikaskuntza, pentsamendua eta adimena.		Gizakiaren eraikuntza: motibazioa, afektibitatea, sexualitatea.
	Pertzepzioaren eta Oroimenaren nahasmenduak.		Psikologia soziala.		Nortasuna eta bere nahasmenduak.
	Psikologia soziala.				

**METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK**

**METODOLOGIA**

Ikasturtean zehar dinamika ezberdinak erabiliko dira: azalpenak, irakurketak, fitxak, praktikak, talde lanak, eskemak, apunteak, jarduerak,... Gaiarekin lotutako ikus-entzunezkoak ere erabiliko dira eta batzuetan beharrezkoa izanen da ikasleak berak informazioa bilatzea informazio iturri ezberdinetan: egunkarietan, Interneten, entziklopedietan...

Lanak eta ariketak banaka egingo dira batez ere, beste batzuk, taldeka.

**BALIABIDEAK**

Irakasleak fotokopiak banatuko ditu.

Klasean egindako eskemak, ariketak eta hartutako apunteak.

Filmak eta dokumentalak.

Auto-ezagutzarako ariketa praktikoak (praktikak).

Dokumentalak eta filmak

Psikologiarekin lotutako blogak

## EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

Mintegiko programazio didaktikoan ikusgai eta link honetan

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

### KALIFIKAZIO SISTEMA

- A.** Irakasgaia gainditzeko gutxienez 2 ebaluazio gaindituta egon behar dira, eta 3 ebaluazioetako noten batz bestekoa 5 izatea.
- B.** Ebaluazio bakoitzean notak jartzeko momentuan kontuan hartuko dira hurrengo elementuak:
- Ebaluazio bakoitzeko azterketaren notak %50 balioko du.
  - Ebaluazio bakoitzean egingo eta jasoko diren praktikak, ariketak edota talde-lanen notak %50 balioko du. **Epea amaitu ondoren** aurkeztutako lanek zigorra izango dute: nota ezin da 5 baino handiagoa izan. Beste pertsona batzuei **kopiatutako lanei dagokienez** (ikaskideen lanak edo aurreko urteetakoak, edo internetetik ateratakoak, etab.), zigorra handiagoa izango da, lan horrek 0 kalifikazioa jasoko baitu.
- C.** Irakasgaiaren azken nota (nota finala) horrela osatuko da: hiru ebaluazioetako noten batz bestekoa. Kurtso bukaeran batz bestekoa 5era ailegatzen ez bada, ez ohiko azterketa egin beharko da ekainean.

### ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA BOROBILTZEA

**ZUZENKETA IRIZPIDEAK:** bakarka zein taldekako lanetan, **errubrikak** erabiliko dira; azterketan, berriz, **0-10 eskala**.

#### BOROBILTZEA:

**Ebaluazioko** nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

**Ikasturte bukaerako** nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

### ERREKUPERAZIO SISTEMA

Ikasleek gainditu ez dituzten ebaluazioak berreskuratzeko sistema honako hau izango da:

- 1. edota 2.ebaluazioak suspendituz gero, errekupeazioa hurrengo ebaluazioan egingo da (hots, 1.ebaluazioa 2.ean berreskuratuko da, eta 2.ebaluazioa 3.ean).
- 3.ebaluazioaren errekupeazioa Nahikotasunean egingo da. Beharrezkoa izango balitz, aurreko ebaluazioen errekupeazioak ez badira gainditu, Nahikotasunean aukera emango zaio ikasleari aurkezteko (Ez Ohiko Deialdira joan aurretik).

Errekupeazio-azterketetan edota lanetan, gehienezko nota 5 izan daiteke.

### KANPOKO EBALUAZIOA

Ikasgai honi ez dagokio.

**OHARRA:** planifikazio honek aldaketak izan ditzake ikasturtean zehar, Filosofia Departamentuak beharrezkotzat jotzen badu.